

# Emakumeok planto




**Martxoak 8**  
emakumearen eguna

UNITATE DIDAKTIKOA



[www.steças.eu](http://www.steças.eu)



# Sarrera

«Emakumeok planto» lemapean, emakumeek historian egindako borrokak ezagutzera eman nahi dizkiegu ikasleei, eta agerian utzi nahi dugu emakumeen produkzio eta ugalketa lanik gabe mundua paralizatuta geratuko litzatekeela.

Gutziz beharrezkoa da emakumeen borrokak ahanzturatik berreskuratzea, arrazoi askorengatik; horien tartean, hauek nabarmendu nahi ditugu: gure neska ikasleen erreferentziarik eza eta gure aurreko emakumeekin dugun zorra kitatzeko beharra.

Emakumerik gabe ez dago historiarik; hala, eskola curriculumeko, testuliburuetakoko eta ikasgeletako espazio eta denboraren erdigunean jarri behar ditugu behingoz, ez bakarrik emakumeen memoria berreskuratu behar delako, baizik eta zorrotasunik gabeko kontakizun partzial eta osatugabe batek normalizatu egin duelako, berez, bazterkeria elementu bat dena, hots: emakumeen ikusezintasuna historian.

Horrenbestez, unitate didaktiko honek bi helburu ditu: alde batetik, emakumeok gure protagonismoaz jabetzea historian, eta, bestetik, ikasleekin batera aurtengo martxoaren 8ko nazioarteko mezuaren gainean hausnartzea: gizartean emakumeei inposatzen zaigun paper subsidiarioa gorabehera, populazioaren erdia gara eta bizitzari eusteko ezinbestekoak diren lanak egiten ditugu.

Hala, ikasleak emakumeek egindako lanen garrantziaz jabe daitezten, era askotako ariketak planteatu ditugu, kartela eta «Emakumeok planto» lema ardatz hartuta. Era berean, hainbat ariketa prestatu dira, non sakon aztertzen baitira lehen mailako tresna politiko baten, hots, grebaren beharra eta ondorioak. Gaur egungo eskubide laboralak, zibilak... emakumeek, langile klaseak eta bestelako «gutxiengoek» historian egin izan dituzten mobilizazioei esker lortu dira, eta gaur-gaurkoz ere beharrezkoak dira, eskubideak ken ez diezazkiguten.

Amaitzeko, «Baliabideak» atalean, material ugari (filmak, film laburrak, komikiak, liburuak...) proposatzen dugu, gizartea eraldatu duten borroketan emakumeek bete izan duten paperari buruzko gogoeta sistematiko bat egiteari begira.

Unitate didaktiko hau borroka horiekin jarraitzeko gonbidapen bat ere bada, indarkeria matxistarekin amaitzeko, eredu hegemonikoa apurtuko duten maskulinitate ereduak sortuko dituen heziketa afektibo-sexual bat sustatzeko, emakumeen soldata arrakalarekin eta pobretzearekin amaitzeko, enpleguan bereizketa sexual horizontal eta bertikala ezabatuzeko... Azken batean, kontua da pertsona guztiek beharrezkoak diren baliabideak eskuratu ahal izatea, berdintasun eta ingurumen jasangarritasun baldintzetan. Eta egiteko horretan, eskola komunitateak ekarpen handia egin dezake.

## Abiapuntua

Aurtengo Martxoaren 8ko lema oinarritzat hartuta emakumeek historian planto egin dituzten egoerak ikustaraztea.

### HELBURU OROKORRA

Emakumeek historian egin dituzten borrokak ezagutaraztea eta egunerokoan egiten dituzten lanak ikustaraztea, baita dagokien garrantzia ematea ere.

### HELBURU DIDAKTIKOAK

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunez eta desberdintasunez kontzientzia hartzea ogibide, kirol, borroka, aktibitate, eguneroko bizitza eta historiaren azterketatik abiatuta.
- Orain arteko lorpen zein hobekuntzaz ohartzea, positiboki baloratu, atzerapenak ekiditeko.
- Jendartearen eragina eta estereotipoak aztertzea, bakoitzaren alde baikorrak eta ezkorak azaleratu, gizon eta emakumeen arteko berdintasun errealak lortzeko.
- Ikasleen auto-estimua era aktiboan sustatzea, beraien garapen psikosoziala indartuz, erabakiak hartzeko gaitasuna izateko.
- Gaitasun sozialak lantzea (argudiatzea, eskatzea, nahiago duzuna adieraztea, bestelako esperientziekin enpatia agertzea...), elkarbizitza osasuntsu eta libre bat errazteko.
- Norberaren erabakietan eragina duten hainbat faktoreri buruz hausnartzea.
- Greba bat zer den jakitea eta haren eraginak aztertzea.

## OINARRIZKO GAITASUNAK

- Gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna.
- Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna.
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna
- Informazioa lantzeko gaitasuna eta gaitasun digitala.
- Kultur gaitasuna eta gaitasun artistikoa.

## EDUKIAK

- Lan munduari lotutako kontzeptuak: greba, lansariak, pentsioak, langabezia, zaintzak...
- Emakumeek historian egindako borrokak eta plantoak.
- Hainbat film eta bideo ikustea.
- Informazioaren bilaketa selektiboa.
- Adostasunetara iristeko prozeduren garapena.
- Giza garapenerako gizonen eta emakumeen ekarpenen azterketa.
- Emakumeen egoerei buruzko sentsibilizazioa.
- Elkarlanerako eta lankidetzarako jarrera.
- Irizpide kritikoz jokatzeko ahalmena.
- Emakumeei egokitzen zaizkien rolak.
- Artistak eta beren obrak ezagutzea eta horiek konparatzea.
- Emozioak identifikatzea.
- Auto-estimua hobetzeko mekanismoak.
- Gaitasun sozialak.
- Harremanak errespetuz eta berdintasunez ezartzea.
- Etxeko lanaren banaketari buruzko hausnarketak bultzatzea.



## Jarduerak

Hurrengo jarduerak ikasleen adinera eta gaiarekiko duten motibaziora egokitu beharko dira. Horretarako hainbat baliabide erabil daitezke.

1

### GAIAREN AURKEZPENA ETA MOTIBAZIOA

**Materialak:** STEILASek aurkeztu duen kartela.

**Denbora:** 4 saio.

**Taldekatze mota:** banaka, talde txikiak eta talde handia.

Garapena:

#### 1. saioa

- 1 Irakasleak STEILASeko kartela toki ikusgarri batean jarriko du.
- 2 Ikasleak talde txikitik banatuko dira, eta hamabost minututan talde bakoitzari kartelaren esanahia zein den eztabaidatzeko eskatuko zaio.
- 3 Esanahiak komunean jarriko dira, eta ondorengo galderen inguruan hitz egingo da, galderak adinaren arabera egokituz:
  - Nor agertzen da kartelean?
  - Zer egin dute emakume horiek?
  - Zer lortzeko borrokatu dute?
  - Nola lortu dute beren borrokek irabaztea? Zer estrategiarekin?
  - Kartelaren leloak zer adierazten du?
  - M8 egunean zer aldarrikatzen da? Aurtengo deialdiak zer ikustarazi nahi du?
  - Kartela egun honetarako egokia al da? Zergatik?
  - Egun hauetan aldarrikapenak egiten jarraitu behar al da? Zergatik?
  - Zerri erreparatu diozue horrelako ondorioak ateratzeko?

## 2. saioa

Kartelean agertzen diren emakumeen inguruko informazioa bilatuko dute taldeka, eta erreferente berriak eta gertuagokoak bilatuko dituzte. Haien borrokak nolakoak izan ziren eta zer lortu nahi zuten aztertuko dugu.

(HH eta LH)

- 1 Ideia zaparradaren bitartez, herrian edo familietan izan dituzten emakume garrantzitsuak izendatuko dituzte (adinaren arabera, irakasleak berak proposatu ditzake).
- 2 Zerrenda egin ostean, bakoitzak pertsona bat aukeratuko du, eta hari buruzko informazioa bilduko du (zertan izan den aitzindari, non egiten zuen lan, zeren alde borrokatu zuen, nola egin zuen borroka edo planto...), baita haren argazki bat ere.

## 3. saioa

- 1 Lortutako informazioarekin mural bat egin dezakegu, eta, bertan, pertsonen argazkiak jarri, albo batean haien bizitzari buruzko biografia labur bat ipinita.

## 4. saioa

Talde bakoitzak landutako emakumearen aurkezpena egingo du (borrokaren antzeppen txiki bat izan daiteke...).

Familiak gonbida daitezke egindako muralaren aurkezpen bat ikustera, eta, ahal bada, muralean agertzen den norbait ere gonbida daiteke bere testigantza eman dezan.



## 2

**INGURUKO ERREALITATEA ETA BORROKA MOTAK AZTERTZEN**

**Materialak:** inkesta orriak, paperak, arkatza, boligrafoa...

**Denbora:** 2 saio.

**Taldekatzeko mota:** banaka, talde txikiak eta talde handia.

**1. saioa**


- 1 Haur bakoitzak inkesta bat egingo dio etxeko edo inguruko emakume bati, eta galdetuko dio, besteak beste, zertan egiten duen lan, zenbat ordu... Jarduera honen helburua haur bakoitza bere inguruko errealitatean emakumeek dituzten jarrerez ohartzea da. Gero, kontzientziaz horrek aldaketak bideratzea ahalbidetuko du, horien gaineko hausnarketa kritiko bat egin ondoren. Horretarako, galderak talde txikitan proposatuko dira, eta ondoren talde handian adostu.
- 2 Erregistro taula bat ere planteatu daiteke; horrela, etxean eta etxetik kanpo emakumeek eta gizonak egindako lan bakoitzeko haur bakoitzak puntu bat jarriko du, edo gometx bat, adibidez: janaria prestatu, platerak garbitu, erratza pasa, garbigailua jarri, arropak lisatu, erosketak egin... bezalako kontzeptuak erregistra daitezke.

**2. saioa**

- 1 Elkarrizketetan eta erregistro tauletan lortutako erantzunak eta datuak konpartituko dituzte.
- 2 Ondorioak aterako dituzte, eta emakume horiek guztiek egun bateko greba egingo balute zer gertatuko zen galdetuko zaie ikasleei.
- 3 Grebaren eta desobedientziaren inguruan hitz egingo dute:
  - Zer da greba bat?
  - Nola eragiten du?
  - Zer motatako grebak daude?
  - Planto egin duen emakumeren baten berri izan duzue?



- 4 Galdetuko diegu ia norbaitek bere etxean borrokarik egin duen inoiz zerbait lortzeko eta zer borroka mota ezagutzen dituzten, eta gero borroken inguruko hausnarketa bideratuko dugu.



Haur Hezkuntzan, *El lobo hace huelga* liburua irakurri eta landuko dute, greba zer den lantzeko.

<http://papelisimo.es/2016/09/el-lobo-hace-huelga-2-actividades-para-ninos/>

3

## HISTORIAKO EMAKUMEAK ETA HAIEN LORPENENAK

**Materialak:** kartulinak, margoak, artaziak, argazkiak...

**Denbora:** 2 saio.

**Taldekatze mota:** banaka eta talde handia.

**Garapena:**

**1. saioa  
(DBH eta Batxilergoa)**

- 1 Ikasleei galdetuko zaie zenbat aldiz bozkatu duten beren amek eta beren amonek. Nabarmena izango da amona askok ez zutela bozkatzeko eskubiderik izan. Horrekin batera, galde diezaiekegu ere emakumeok zer eskubide lortu ditugun historian zehar, nork lortu zituzten... (Irakasleak ideia zaparrada bideratuko du ariketa egingarria izan dadin, sufragistak, abortuaren aldeko borroka...).

Horrekin batera, hausnarketa txiki bat egingo da, uler dezaten eskubideak ez direla iristen, borrokaren ondorioz lortzen baizik.



## 2. saioa

Emakumeak artearen munduan duen presentziaz ere hausnar daiteke. Horretarako, «Guerrilla Girls»ek egindako lana eta ikerketa erabil daiteke. Hasiera moduan plazaratu zuten esaldi esanguratsuenarekin has gaitezke, honako hau da: «Do women have to be naked to get into the MET. Museum?».



W.I.T.C.H. mugimenduaren inguruko informazioa topa daiteke: nola borrokatu ziren, zeren aurka eta zer lortu zuten.

<http://choppermonster.com/witch-brujas-feministas>



## Ebaluazioa

Kartelarekin egingo den lehenengo jarduera emakumeek historian egindako borrokei buruzko ikasleen ezagutzak edo sentsibiltatea ebaluatzeko erabiliko da.

Unitatea landu bitartean, behaketa sistematiko baten bidez ebaluatuko da ikasleen parte hartzea eztabaidetan, informazioaren bilaketan eta materialen lanketan.

Unitatea bukatzean, berriz, ikasleen banakako eta taldeko lana baloratuko da, ezarritako irizpideen arabera.

Bestalde, jarduera bakoitzaren bukaeran jarduera bera ebaluatuko da; hots, zerk funtzionatu duen eta zerk ez, nola antolatu den gela, denbora, ikasleen motibazioa, taldekatzea... Hori guztia unitatearen prozesua eta garapena egokitzeko erabiliko da.

### EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

- Ea eguneroko egoerak behatzen eta aztertzen dituen genero osagaia kontuan hartuz.
- Ea ohartzen den harremanetan dauden estereotipoez.
- Ea harremanetan izan behar dituzten ezaugarriek beren lehentasunak adierazten dituzten.
- Ea ezagutzen duen honako hitz hauen esanahia: greba, beldurra, negoziazioa, jelskortasuna, balorazioa, errespetua, sostengua, elkarrizketa, mesprezua, berekoikeria, inposaketa, lotsa, eskuzabaltasuna, segurtasuna. Eta ea badakien horietako zein diren egokiagoak bizikidetasunerako.
- Ea ezagutzen duen askatasun eta ausardia hitzen esanahia eta haien balio baikorra edo ezkorra.
- Ea emakumeek historian egindako borrokez hausnartzeko gai den.

**EBALUATZEKO TEKNIKAK**

- Behaketa.

**EBALUATZEKO TRESNAK**

- Irakasleak egunero egindako jarraipena.
- Ikasle bakoitzaren historia. Bertan bilduko dira haien lanaren balorazioa, lan esanguratsuen bilduma eta unitatea garatzean egindako ahozko ekarpenak.
- Egindako lanak.

**IKASLEEN EBALUAZIOA**

- Zer gustatu zaien gehien eta zer gutxien?
- Zer ikasi dute edo zertaz jabetu dira?
- Zerk harritu ditu gehien?
- Zer aldatuko lukete prozesuan?

## Baliabideak

### WEBGUNE INTERESGARRIAK

- <http://mugalari.info/opinion/la-educacion-memoria-e-historia-de-las-mujeres-vascas-lecturas-feministas/>
- <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/mujer-historia-vision-general-de-los-estudios-de-la-mujer-vasca/ar-96762/>
- <http://www.intxorta.org/tienda/producto/educacion-memoria-e-historia-de-las-mujeres-vascas-lecturas-feministas/>
- <https://www.dolcecitiy.com/bilbao/2016/03/6-mujeres-ilustres-de-la-historia-de-bilbao.asp>
- <http://www.elmundo.es/pais-vasco/2015/06/22/5587e5fbca47414c1a8b4574.html>
- <http://www.publico.es/politica/diez-mujeres-imprescindibles-y-olvidadas.html>
- <http://www.pikaramagazine.com/2016/09/mujeres-mineras-vascas/>
- <http://choppermonster.com/witch-brujas-feministas/>



### IPUINAK

- *Exploradoras*, Nathalie Bellón, Ed. Libros de la Herida.
- *Hamaika andere ausart*, Oli, Kalandraka (2001) [3 eta 9 urte bitarteko haurrei zuzendua].
- *Urdaburutarrak*, Anthony Browne, Kalandraka (2005) 7 urtetik gora. Gaia: etxeko lanak banatzea.
- <http://papelisimo.es/2016/09/el-lobo-hace-huelga-2-actividades-para-ninos/>

**KOMIKIAK**

*Sally Heathcote. Sufragista.* Kate Charlesworth, Brian Talbot & Mary M. talbot. Ed. La Cúpula.

*La mujer rebelde. La historia de Margaret Sanger,* Peter Basse. Ed. La Cúpula.

*La rosa roja. Biografía de Rosa Luxemburgo.* Kate Evans. Ed. Izquierda Diario.

**STES (egutegi bat informazio eta jarduerekin)**

[https://issuu.com/confederacion\\_intersindical/docs/calendario\\_tiempo\\_mujeres\\_2014](https://issuu.com/confederacion_intersindical/docs/calendario_tiempo_mujeres_2014)

**JARDUERAK**

<http://www.edualter.org/material/dona/8mar%E72006/dretshumans.pdf>

<http://www.inmujer.gob.es/publicacioneselectronicas/documentacion/Documentos/DE1487.pdf>



## FILMAK

- *Sufragistas* (2015), Sarah Gravon
- *Pan y rosas* (2000), Ken Loach
- *Coraje* (1998), Alberto Durant
- *La fuente de las mujeres* (2011), Radu Mihaileanu
- *Pago justo* (2010), Nigel Cole
- *Norma Rae* (1979), Martin Ritt
- *En tierra de hombres* (2005), Niki Caro
- *Las bostonianas* (1984), James Ivory
- *Figuras ocultas* (2016), Theodore Melfi
- *Libertarias* (1996), Vicente Aranda
- *Angeles de Hierro* (2004), Katja Von Garnier
- *Las 13 rosas* (2007), Emilio Martín Lázaro
- *En el tiempo de las mariposas* (2001), Mariano Barroso
- *Moolaadé* (2004), Ousmane Sembene

## SERIEAK

- *Rita*
- *El cuento de la criada*
- *Big little lies*
- *Glow*
- *Alias Grace*
- *Queridos blancos*
- *Las chicas del cable*
- *The good fight*
- *Happy Valley*

## DOKUMENTALAK

- *Ahotsak.eus\_Tabakalera: gehienak emakumeak* (2010)
- *Nosotras, mujeres de Euskalduna* (2016), Larraitz Zuazo
- *Irrintziaren oihartzunak* (2017), Iratxe Fresneda
- *Las Maestras de la República* (2013), Pilar Pérez Solano
- *Cuidado Resbala* (2013), María Camacho, Monserrat Clos, Mercedes Cordero, Vanessa Gómez, Leonor Jimenez y Carolina Suarez
- *Hecho en los Angeles* (2009), Almudena Carracedo



*Emakumeok plantz*



[www.steças.eu](http://www.steças.eu)